ANTSOAIN
ANSOÁIN
UDALA · AYUNTAMIENTO

Udalaren informazio aldizkaria
Boletín de información municipal
2026 OTSAILA-FEBRERO / Nº 47. ALEA

# ANTSOAIN



## Urte berri on!
## ¡Feliz año nuevo!

**Argitaratzailea:** Antsoaingo Udala.
**Erredakzio Kontseilua:** Silvia Miranda, Sara Gila, Carlos Jiménez, José Javier Andueza, Francisco Javier Vilchez.
**Egilea:** Heda Comunicación, S.L.
**Argazkiak:** Jon Urriza, Irene Idoate, Anne Arguiñariz.
**Ale kopurua:** 4.700 ale.
**Doako banaketa.**

**Edita:** Ayuntamiento de Ansoáin.
**Consejo de Redacción:** Silvia Miranda, Sara Gila, Carlos Jiménez, José Javier Andueza, Francisco Javier Vilchez.
**Realiza:** Heda Comunicación, S.L.
**Fotografías:** Jon Urriza, Irene Idoate, Anne Arguiñariz.
**Tirada:** 4.700 ejemplares.
**Difusión gratuita.**

**Udal aurrekontua 12 milioi eurotik gorakoa da**

**El presupuesto municipal supera los 12 millones de euros**

**Bultzada berria “Antsoain, Zaintzen duen Herria” ekimenari**

**Nuevo impulso al programa “Ansoáin, Comunidad que Cuida”**

**JARRAI GAITZAZU SAREETAN / SÍGUENOS EN REDES**

Antsoaingo Udala Ayuntamiento de Ansoáin

Antsoaingo Udala Ayuntamiento de Ansoáin

# Eskolako jostalekuko alde estalia udan berrituko da

# La zona cubierta del patio escolar se reformará en verano

Udalak eskolako jostalekuko alde estalia berrituko du, gaur egungo gabeziak konpontzeko eta behar bezalako baldintzak izan daitezen jarduera komunitarioak egiteko. Proiektua 2023-2029ko Udal Plan Estrategikoan dago sartua.
2025ean, bilera irekia egin zen herriko hezkuntza komunitatearekin, kirol klubekin eta kultur eragileekin, haien iritzia eta beharrak jakiteko. Lanak aurtengo udan eginen dira 10 bat astean. Gaur egungo zolarri hautsiaren ordez hormigoizko bat jarriko da eta, gainean, kirolerako zoladura bat, entrenamenduak eta kirol lehiaketak egin ahal izateko. Era berean, albo bat ixteko asmoa dago, euri urik ez sartzeko eta eremu hori haizetik babesteko.
2026ko udal aurrekontuan, 125.000 euroko partida bat sartu da lanak egiteko, Nafarroako Gobernuko aurrekontuetako zuzenketa izendun baten bidez lortutakoa. Urtean zehar eta, behin lizitazioa esleitutakoan, obra finantzatuko da. Kalkuluen arabera, 400.000 euro inguruko kostua izanen du.



El Ayuntamiento reformará la zona cubierta del patio escolar, con el fin de solucionar las deficiencias existentes y mejorar las condiciones para realizar actividades comunitarias. El proyecto forma parte de las acciones incluidas en el Plan Estratégico Municipal 2023-2029.
En 2025 se realizó una reunión participativa con la comunidad educativa, los clubes deportivos y los agentes culturales locales para conocer su opinión y necesidades. En verano de 2026 se llevarán a cabo las obras, que tendrán una duración aproximada de 10 semanas. La solera existente, que se encuentra deteriorada, se sustituirá por una nueva de hormigón con un revestimiento de pavimento deportivo que permitirá desarrollar entrenamientos y competiciones deportivas. Para evitar la entrada de agua de lluvia y garantizar la protección del espacio frente al viento, se proyecta la ejecución de un cierre lateral.
En el presupuesto para 2026 se incluye una partida de 125.000 euros obtenidos a través de una enmienda nominativa en los Presupuestos de Gobierno de Navarra. A lo largo del año y una vez adjudicada la licitación, se financiará la obra, cuyo coste estimado es de unos 400.000 euros.

# Eguberriko merkataritza kanpaina, arrakastatsu

# Finaliza con éxito la campaña de comercio en Navidad

Udalak "Zure jaiak tokiko merkataritzan prestatu" izeneko kanpaina egin zuen Eguberrietan, abenduaren 1etik 11ra, Gabonetako egunetan herriko merkataritza bultzatzeko eta kontsumo eredu arduratsu, jasangarri eta hurbilekoa sustatzeko. Era berean, zozketa bat egin zen, erosketak Antsoainen egiten dituzten bezeroen fideltasuna saritzeko.
80 bat establezimenduk parte harturik, herritarrek erantzun on-ona eman zioten kanpainari. Izan ere, 12.000 txartel banatu ziren, kanpainari atxikitako saltokietan erosketak egin zituen jendearen artean. Idaki gune hidrotermalera joateko 50 gonbidapen banatu ziren eta, horrekin batera, Antsoain Antzokiko ikuskizunak ikustera joateko 50 sarrera bikoitz, 20na euroko 50 txartel herriko merkataritzan gastatzeko, eta Errigora ekimeneko lau elikagai saski.
Udalak eskerrak eman dizkie bai kanpainarekin bat egin duten establezimenduei, bai herritarrei, parte-hartze handia izan delako. Horrez gain, Udalak esan du aurrerantzean ere merkataritza bultzatzeko kanpainak eginen dituela, herriko merkataritza indartzeko eta kontsumo eredu arduratsu eta jasangarria sustatzeko.

El objetivo principal de la campaña municipal de Navidad "Prepara tus fiestas en el comercio local" desarrollada del 1 al 11 de diciembre fue impulsar la actividad del comercio local y fomentar un modelo de consumo responsable, sostenible y de proximidad durante las fechas navideñas, además de agradecer con el sorteo a la clientela que realiza sus compras en Antsoain.
La campaña contó con la participación de cerca de 80 establecimientos y una amplia respuesta ciudadana. Se repartieron 12.000 boletos, que fueron entregados a quienes compraron en los comercios adheridos. Se repartieron 50 invitaciones para el centro hidrotermal de Idaki, 50 entradas dobles para espectáculos en el teatro de Ansoáin, 50 vales de 20 euros para gastar en el comercio local y 4 cestas de alimentos de la iniciativa Errigora.
El Ayuntamiento agradece tanto a los establecimientos adheridos como a la ciudadadanía por su alta participación. Además, reafirma su compromiso de seguir impulsando campañas de dinamización comercial con el objetivo de fortalecer el comercio local y promover un modelo de consumo responsable y sostenible.

# 12 milioi euroko aurrekontua 2026rako

# 12 millones de euros, presupuesto para 2026

Osoko bilkurak 12.026.644 euroko aurrekontua onetsi zuen 2026rako, joan den abenduaren 17an. Hau da, 2025ekoa baino % 0,82 handiagoa.
Dirua 2023-2029ko Udal Plan Estrategikoan bildutako 28 ekintzetatik 14tara bideratu da, zaintzetan begirada berezia jarrita, “Antsoain, zaintzen duen herria” zeharkako proiektuaren bidez, bai eta esparru publikoan eta kirol instalazioetan ere.
Langileria gastua guztiaren % 48,18 da. Ekintza estrategikoen artean, berdintasunaren eta euskararen aldeko politikak dira nabarmentzekoak, biak ere gastuaren % 1 baino gehiago baitira, bai eta komunitatea, kultura eta zaintzak sustatzeko politikak ere, guztiek ere diru gehiago izanen baitute aurtengo aurrekontuan. Horrez gain, berariazko partida bat erantsi da Plan Estrategikoa bultzatzeko, 2026an hasiko diren ekintzek hurrengo urteetan segida izan dezatela ziurtatzeko.

## Inbertsioak eta mantentze lanak

Aurrekontuarekin bat, guztira 833.518 euroko inbertsioak eginen dira; haien artean, hirigintza tramitazio bat da nabarmentzekoa Harrobiak kaleko udal ekipamendurako lurzatia mugiarazteko eta, horrekin batera, proba teknikoetara bideratuko diren 30.000 euroak Udaletxe plazako garajearen egiturari zer irtenbide eman zehazteko, eta udal eraikinetan eginen diren lanak itaxurak eta bestelako eraikuntza-patologiak moldatzeko.
Instalazioen Plan Zuzentzailea eguneratzearen ondorioz, 160.000 euro inbertituko dira kirol instalazioen hazkundea eta modernizazioa bultzatzeko, eta mantentze-lanetarako eta ekipamenduetarako partidak ere hobetu dira. Horretarako, 125.000 euro daude eskura, Nafarroako aurrekontu orokorrei egindako zuzenketa izendun batetik etorriak. Bestalde, 60.000 euroko beste zuzenketa bati esker, Lerin kaleko korridore berdearen zati bat egiten hasiko da.
Era berean, diru gehiago bideratuko da kaleak, plazak eta eraikinak mantentzeko lanetara; bestalde, energia eraginkortasunez erabiltzeko hartu diren neurriei esker, gastua jaitsi egin da kirol instalazioetako argiteria publikoan eta elektrizitate nahiz gas kontsumoan.

## Diru-sarrerak

Diru-sarrerei dagokienez, aurrekontuko atalik garrantzitsuena transferentzia arruntei dagokie (5.834.406 euro). Partaidetza, berriz, % 4,1 igo da Tokiko Ogasunen Funtsean.
Urrian hiri kontribuzioaren tasa murriztea erabaki bazen ere, aurreikuspenen arabera diru gehiago eskuratuko da horren bidez, katastro balioak igo izanaren ondorioz. Halaber, aurreikuspenen arabera, diru gehiago sartuko da kirol instalazioetako kuoten bidez, abonatuak gehiago direlako eta abonuak % 4 igo direlako.
Azkenik, aipatu behar da zorpetze maila % 0 dela eta 591.535 euroko aurrezpen garbia dagoela aurreikusia.
Osoko bilkura berean, plantilla organikoa onetsi zen; esan behar da soldatak % 2,5 igoko direla 2026an.

El Pleno aprobó el 17 de diciembre un presupuesto para 2026, de 12.026.644 euros, un 0,82% superior al de 2026.
Destina recursos a 14 acciones de las 28 recogidas en el Plan Estratégico Municipal 2023-2029, con especial atención a los cuidados a través del proyecto transversal “Ansoáin, comunidad que cuida”, al espacio público y a las instalaciones deportivas.
El capítulo de personal representa el 48,18% del total. Entre las acciones estratégicas, destacan las políticas de igualdad y las de promoción del euskera, que superan ambas el 1% del gasto, y las políticas comunitarias, culturales y de cuidados, que se fortalecen como ejes estructurantes del presupuesto. Además, se incorpora una partida específica para la dinamización del Plan Estratégico, con el fin de asegurar que las acciones que inicien en 2026 tengan continuidad en los próximos años.

## Inversiones y mantenimiento

En total, el presupuesto contempla 833.518 euros en inversiones, entre las que destacan la tramitación urbanística para movilizar la parcela dotacional municipal de la calle Canteras, 30.000 euros destinados a pruebas técnicas para determinar la solución estructural del garaje de la plaza consistorial y la intervención en goteras y patologías constructivas en edificios municipales.
Tras la actualización del Plan Director de Instalaciones, se invertirán 160.000 euros para impulsar el crecimiento y la modernización de las instalaciones deportivas, además de mejorar las partidas destinadas a mantenimiento y equipamientos. Se cuenta para ello con 125.000 euros procedentes de una enmienda nominativa a los presupuestos generales de Navarra. Otra enmienda de 60.000 euros permitirá comenzar a ejecutar parte del corredor verde de la calle Lerín.
También aumentan las partidas destinadas a mantenimiento de calles, plazas y edificios; y baja el gasto de alumbrado público y de consumo de electricidad y gas de las instalaciones deportivas gracias a las medidas de eficiencia energética adoptadas.

## Ingresos

En cuanto a los ingresos, el capítulo más importante del presupuesto es el de transferencias corrientes (5.834.406 euros), con un incremento del 4,1% en la participación en el Fondo de Haciendas locales.
A pesar de la reducción del tipo de la contribución urbana acordada en octubre, se prevé un incremento en los ingresos por este concepto debido a la subida de los valores catastrales. También se prevé un crecimiento en los ingresos por cuotas de las instalaciones deportivas debido al aumento de personas abonadas y a la subida de los abonos un 4%.
Por último, cabe señalar que el nivel de endeudamiento es del 0% y se prevé un ahorro neto de 591.535 euros.
En el mismo pleno se aprobó la plantilla orgánica, cuyos salarios se incrementan un 2,5% en 2026.

Antsoaingo Udalaren informatzio aldizkaria / Boletín de información municipal de Ansoáin

**XABIER MARTÍNEZ URROZ**
TOKIKO POLIZIA-BURU BERRIA

« Tokiko poliziak hurbila izan behar du, eta komunitateari zerbitzurik onena bermatzea dugu lehentasun»

Xabier Martínez Urrozek erronkak ditu gustuko; beraz, ez zuen zalantzarik izan Antsoaingo polizia burutza bere gain hartzeko proposamena onartzeko orduan. Foruzaingoko kidea da eta, bere ibilbidea, funtsean, kidego horretan egin du, baina 2015etik 2019ra Zizur Nagusiko polizia-burua izan zen. Hortaz, badu eskarmentua toki esparruan. Antsoainen, joan den azaroaren 13an hasi zen lanean Mikel del Molinoren ordez.

**Nolakoak izan dira lehen aste hauek?**
Antsoainen lan egiteko modua ezagutu dut, oso udalerri digitalizatua baita eta udaltzaingoko langileak ere ezagutu ditut. Plantilla konprometitua da, oso egituratua, eginkizunak ongi zehaztuak ditu eta herria sakon ezagutzen dute. Udalerriari dagokionez, herri aktiboa da eta merkataritza handi samarra da.

**Tokiko poliziari dagokionez, zer eredu proposatzen duzu?**
Tokiko poliziak hurbila izan behar du, eta komunitateari zerbitzurik onena bermatzea dugu lehentasun. Niri talde politikoaren eta plantillaren arteko solaskidea izatea dagokit. Pertsonen eta materialaren kudeaketaz arduratzen naiz, poliziak behar diren bitartekoak izan ditzan, "Antsoain, Zaintzen duen Herria" programarekin bat. Alde horretatik, aipatu behar da martxoan bi polizia hasiko direla praktiketan eta, aurreikuspenen arabera, uztailean sartuko dira plantillan. Lanean ari gara polizia gehiago izateko; gaur egun, 14 dira eta lan zama nabarmena dute.

**Zer zeregin dituzte egunerokoan?**
Askotariko lanak dira. Trafikoaz arduratzen gara, ekitaldietan laguntza eman eta zaintza egiten dugu, emakumeei babesa ematen diegu VioGén sistemaren bidez, patruilatu egiten dugu segurtasuna bermatzeko, gauza galduen bulegoa kudeatzen dugu (artetik esateko, oso eraginkorra da Antsoainen), etab.

**Eta gaur egun, zer gaik behar dute arretarik handiena?**
Herritarrek duten kezketako bat aparkamendua da, lur eskuragarritasuna mugatua baita. Hori dela eta, eremu berriak egokitu dira, bizilagunek baizik aparkatu ez dezaten; halaber, zaintza areagotuko dugu, ZAR edo aparkaleku mugatuko eremuan aparkatzeko txartelak ongi erabiltzen direla begiratzeko.
Era berean, hitzarmen bat lantzen ari da, industrialdean abandonatuta dauden ibilgailuak arinago kentzeko eta, aldizkari honetan jakinarazi zen bezala, trafikoaren berrantolamendua dago aurreikusia.



**XABIER MARTÍNEZ URROZ**
NUEVO JEFE
DE LA POLICÍA LOCAL

« La Policía Local debe ser cercana y nuestra prioridad es garantizar el mejor servicio a la comunidad»

A Xabier Martínez Urroz le gustan los retos, así que no dudó en aceptar la propuesta de asumir la Jefatura de la Policía de Ansoáin. Pertenece a la Policía Foral y la mayor parte de su trayectoria la ha desarrollado en este Cuerpo, pero también ejerció como jefe de la Policía de Zizur Mayor entre 2015 y 2019, así que cuenta con experiencia en el ámbito local. En Ansoáin se incorporó a su puesto el pasado 13 de noviembre para sustituir a Mikel del Molino.

**¿Cómo han sido estas primeras semanas?**
He conocido la forma de trabajar de Ansoáin, que es un municipio muy digitalizado, y también al personal de la Policía Municipal. Es una plantilla comprometida, muy estructurada, con funciones bien definidas y un amplio conocimiento de la localidad. En cuanto al municipio, es un pueblo activo y con bastante comercio.

**¿Qué modelo de Policía Local plantea?**
La Policía Local debe ser cercana y nuestra prioridad es garantizar el mejor servicio a la comunidad. A mí me corresponde ejercer de interlocutor entre el equipo político y la plantilla. Me ocupo de la gestión de personas y material para que la Policía tenga los medios necesarios para desarrollar su trabajo dentro del programa "Ansoáin Comunidad que Cuida". En este sentido, cabe señalar que en marzo llegarán dos agentes en prácticas que previsiblemente se incorporarán a la plantilla en julio. Se está trabajando para aumentar el personal, que actualmente está formado por 14 agentes con una carga importante de trabajo.

**¿Qué tareas les ocupan en el día a día?**
Son muy diversas. Nos ocupamos del tráfico, prestamos apoyo y vigilancia en eventos, ofrecemos protección a mujeres a través del sistema VioGén, patrullamos para garantizar seguridad, llevamos la oficina de objetos perdidos (por cierto, muy eficiente en Ansoáin), etc.

**¿Y cuáles son los temas que más atención les reclaman actualmente?**
El aparcamiento es uno de los temas que preocupan a la ciudadanía porque la disposición de suelo es limitada. Por eso se han habilitado nuevas zonas para uso exclusivo de residentes y vamos a incrementar la vigilancia para una utilización correcta de las tarjetas de estacionamiento de la zona ZAR.
También se está trabajando en un convenio que permita la retirada más ágil de vehículos abandonados en el polígono y, como ya se informó en este boletín, está prevista una reorganización del tráfico.

# Urteko kudeaketa plana onetsi da

# Aprobado el Plan de Gestión Anual

Planaren ardatz nagusien artean, **"Antsoain, Zaintzen duen Herria"** proiektua dago eta, haren baitan, hainbat neurri, hala nola Plazan-Plaza ekimena, zaintzen mahaia, sukalde komunitarioa sortzea eta boluntariotza.
Halaber, **genero berdintasuna**rekiko konpromisoa da nabarmentzekoa, Emakumeak Ahalduntzeko Eskolaren bidez, bai eta genero indarkeria prebenitzeko eta artatzeko ekintzen bidez ere.
Kultur arloan, **"Antsoain gara"** proiektuan eginen da aurrera, parte-hartzean oinarriturik. Ekimenaren xedea tokiko nortasun partekatu bat sustatzea da, jendearen udalerriarekiko atxikimendua indartzeko.

Planean aurtengo jarduketa ildoak eta lehentasunezko proiektuak bildu dira

Euskarari dagokionez, **Euskararen Plan Estrategikoa** eginen da, elkarlanean oinarritutako diagnostikoaren bidez eta euskararen aldeko bide-orri bat garatuz.
Kirol arloan, **Ezkaba ikastetxeko jostalekua** berritu eta hobetzeko asmoa dago, bai eta **Kirol Mahaia** sortzeko asmoa ere.
**Esparru publikoa eta etxebizitza** ere lehentasunezko ardatza izanen dira. Aurten, berritu beharreko esparru publiko bat identifikatu nahi da, irizpide jasangarriekin bat eta herritarrek parte hartuz eraberritzeko. Era berean, azterlan bat eginen da gazteendako alokairuko etxebizitzetan eta bizitegi-soluzioetan dagoen eskaria eta bideragarritasuna jakiteko.
Planak bestelako jarduketak ere aurreikusi ditu, **energia komunitate bat eta korridore berdea** sortzeko bidean aurrerapausoak emateko eta, jarduketak ere, **kanpo lankidetzan** eta **udal antolamenduan**. Horrez gain, **prozesu pilotuak** jarriko dira abian baterako **gobernantza parte-hartzailean** aurrera egiteko.

Entre sus ejes principales figura el proyecto **"Ansoáin, Comunidad que Cuida"** con medidas como la iniciativa Plazan-Plaza, la mesa de cuidados, la creación de una cocina comunitaria y el voluntariado.
También destaca el compromiso con la **igualdad de género**, a través de la Escuela de Empoderamiento de Mujeres y acciones de prevención y atención de violencia de género.

El Plan marca las líneas de actuación y los proyectos prioritarios para este año

En el ámbito cultural, se avanzará de forma participativa en el proyecto **"Somos Ansoáin"**, que está promoviendo la creación de una identidad local compartida que refuerce el arraigo al municipio.
En materia de euskera, se llevará a cabo un **Plan Estratégico del Euskera**, desarrollando un diagnóstico colaborativo y una hoja de ruta para la promoción del euskera.
En el campo del deporte, está prevista la renovación y mejora del **patio del Colegio Ezkaba**, así como la creación de una **Mesa del Deporte**.
Otro eje prioritario será el **espacio público y la vivienda**. Este año está previsto identificar un espacio público que requiera reforma, para renovarlo con criterios sostenibles y con participación ciudadana. También se va a realizar un estudio de demanda y viabilidad de viviendas de alquiler para jóvenes y de soluciones habitacionales.
El Plan también contempla actuaciones para avanzar en la creación de la **comunidad energética y en el corredor verde**, en **cooperación exterior** y en la **organización municipal**, además de la puesta en marcha de **procesos piloto de co-gobernanza participativa**.

## Epea ireki da hiri kontribuzioaren gaineko zergan hobaria eskatzeko

Udalak epea ireki du hobari hori 2025erako eskatzeko. Epea otsailaren 16an amaituko da. Hobariaz baliatzeko, eskatzaileek honako baldintza hauek bete behar dituzte 2026ko urtarrilaren 1ean: etxebizitza zergadunaren ohiko etxebizitza izan dadila, eta hartan erroldatua egotea; gurasobakarreko familiak izatea edo gurasobakarreko egoeran egotea, edo familiak ugariak izatea, kotizaziorik gabeko pentsioen hartzaileak izatea, edo errenta bermatua edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzea; eta udalarekiko ordainketak egunean izatea.
Kotizaziorik gabeko pentsioak, errenta bermatua edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzen dituzten pertsonen kasuan, hobaria kontribuzio kuotaren % 90 da; gurasobakarreko familien edo gurasobakarreko egoeran dauden familien eta familia ugarien kasuan, berriz, hobarien baremoak errentaren araberakoak dira, hots, % 25etik % 90era bitartekoak, eta gehienez 175 euro.

## Abierto el plazo para solicitar bonificación en el impuesto de contribución urbana

El Ayuntamiento ha abierto el plazo para solicitar esta bonificación para el año 2025, que finaliza el lunes 16 de febrero. Para poder beneficiarse, las personas solicitantes deben cumplir los siguientes requisitos a fecha 1 de enero de 2026: que la vivienda sea la vivienda habitual de la persona contribuyente, y esté empadronada en ella; que se trate de familias monomarentales, monoparentales, en situación de monomarentalidad o monoparentalidad, familias numerosas, perceptores de pensiones no contributivas, de renta garantizada o de ingreso mínimo vital; y que esté al corriente de sus pagos con el Ayuntamiento.
En el caso de personas perceptoras de pensiones no contributivas, de renta garantizada o de ingreso mínimo vital, la bonificación alcanza el 90% de la cuota de la contribución, mientras que en el caso de familias monomarentales, monoparentales, en situación de monomarentalidad o monoparentalidad, y para familias numerosas la bonificación tiene unos baremos en función de la renta que van del 25% al 90%, con un máximo de 175 euros.

## Parte hartu nahi duzu Antsoaingo baratze komunitarioan?

Antsoaingo emakumeek baratze bat dute 2016az geroztik, produktu ekologikoak auzolanean lantzeko. Jimeno Jurío kalean dago. Udaleko Berdintasun Zerbitzuak babesturik, lursailak 250 metro eta 15 baratze-maila ditu. Emakumeek berek dena dute antolatua produktu ekologikoak lantzeko eta biltzeko. Ekimenak hiru xede ditu, hots, jasangarritasuna bultzatzea, emakumeen ahalduntzea eta sareak sortzea.
Gaur egun, baratze komunitarioan badira hainbat plaza eta jendea sar daiteke. Interesa duenak eska dezala argibidea igualdad@ansoain.es helbide elektronikoan edo 948 38 40 48 telefonoan.



## ¿Quieres participar en la huerta comunitaria de Asoáin?

Las mujeres de Ansoáin disponen desde 2016 de una huerta para el cultivo de productos ecológicos en auzolan en la calle Jimeno Jurío. Es un espacio apoyado por el Servicio de Igualdad del Ayuntamiento, que cuenta con 250 metros y 15 bancales, donde las mujeres se organizan para el cultivo y recogida de productos ecológicos. Se trata de una iniciativa que busca la sostenibilidad, el empoderamiento de las mujeres y la creación de redes.
En la actualidad, la huerta comunitaria tiene plazas disponibles y continúa abierta a nuevas incorporaciones Las personas interesadas pueden solicitar más información en el correo electrónico igualdad@ansoain.es o o llamando al teléfono 948 38 40 48.

## Sexualitateari buruzko tailerra Ikastetxean

Ezkaba ikastetxeko lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleek sexualitateari buruzko tailerrean parte hartu dute urtarrilaren 8an eta 9an, Itsaso Torregrosa hezitzaile eta sexologoak emanik. Oraindik ere pixka bat “tabu” diren gaiak landu ziren, hala nola sexu desira, gorputzak eta praktika sexualak. Tailerrean, ikasleek beren kezkak eta zalantzak agertzeko aukera izan zuten.

## Taller de sexualidad en el Colegio Ezkaba

El alumnado de 6º de Primaria del Colegio Ezkaba participó los días 8 y 9 de enero en un taller sobre sexualidad impartido por la educadora y sexóloga Itsaso Torregrosa.
Durante la sesión se trabajaron aspectos que todavía son un poco “tabú”, como el deseo sexual, los cuerpos, las prácticas sexuales. Durante el taller los y las escolares pudieron plantear sus dudas y preocupaciones.

## Prestakuntza Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuko langileentzat

Berdintasun Zerbitzuak tailer bat antolatu du genero indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloari buruz, Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuko langileentzat.
Tailerra otsailaren 23an emanen da Antsoaingo liburutegian. Guztira, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuko hamar langilek jasoko dute prestakuntza genero indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloari buruz. Era berean, genero indarkeriatik babesteko eta huraxe atzemateko tresnak ezagutuko dituzte.

## Formación a trabajadoras del Servicio de Ayuda a Domicilio

El Servicio de Igualdad ha organizado un taller sobre el protocolo de actuación frente a la violencia de género dirigido a trabajadoras del Servicio de Ayuda a Domicilio de la Mancomunidad de Servicios Sociales de Ansoáin, Berrioplano, Berriozar, Iza y Juslapeña.
El taller se impartirá el 23 de febrero en la Biblioteca de Ansoáin. En total, 10 trabajadoras del Servicio de Ayuda a Domicilio recibirán asesoramiento y formación sobre el protocolo de actuación frente a casos de violencia de género y conocerán las distintas herramientas de protección y detección de violencia de género.






# Antzerkia, zine-foruma eta ipuin-kontalariak M-8a ospatzeko

# Teatro, cinefórum y cuentacuentos para celebrar el 8-M

Berdintasun Zerbitzuak hainbat jarduera antolatu ditu datorren martxorako Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko (Martxoaren 8a). Aurten, mugimendu feministak mendez mende egindako borroka eta antolamendu kolektibo hori aldarrikatu nahi ditu. Horrela, "Feminismoari esker… gaur izan, egon, esan eta erabaki dezakegu" goiburu harturik, aurtengo ospakizunak gogora ekarri nahi du aurrekoen ahaleginari eta lanari zor zaizkiela emakumeen egungo eskubide eta askatasun aunitz.
Proposamenen artean, "Lo único que verdaderamente quise toda la vida es ser delgada" antzerki ikuskizuna da nabarmentzekoa, Galiziako ButacaZero taldeak martxoaren 7an Antsoaingo antzokian emanen duena, 19:30ean hasita. Halaber, María Castejónek zuzenduko duen zine-forum saioa, martxoaren 13an, Antsoaingo antzokian, Silvia Munten "Las buenas compañías" filma emanen baita. Eta Birjiñe Albira ipuin-kontalariak "Ni ere ausarta" ipuina kontatuko du euskaraz, martxoaren 25ean, liburutegi publikoan, 17:30etik aitzina.
Ohi denez, martxoaren 8an, kale bilkura eginen da eguerdiko 12:00etan, Udaletxe plazan.








El Servicio de Igualdad ha organizado varias actividades durante el próximo mes de marzo para celebrar el Día Internacional de la Mujer (8 de marzo), que este año quiere reivindicar la lucha del movimiento feminista y la organización colectiva de las mujeres a lo largo de la historia. Bajo el lema "Gracias al feminismo… Hoy podemos ser, estar y decidir", la celebración de este año quiere recordar que muchos de los derechos y libertades actuales de las mujeres existen gracias el esfuerzo y trabajo de sus antecesoras.
Entre las propuestas destaca el espectáculo teatral "Lo único que verdaderamente quise toda la vida es ser delgada", de la compañía gallega ButacaZero, que se representará el 7 de marzo en el teatro de Ansoáin a las 19:30 horas; una sesión de cinefórum dirigida por María Castejón también en el teatro de Ansoáin el 13 de marzo con la película de Silvia Munt "Las buenas compañías"; y una sesión de cuentacuentos en euskera titulada "Ni ere ausarta", a cargo de Birjiñe Albira, programada el 25 de marzo en la Biblioteca Pública a las 17:30 horas.
Como es habitual, el 8 de marzo tendrá lugar la habitual concentración a las 12:00 horas en la plaza Consistorial.

ansoain CHAPISTAS
Hermanos Noain, 15
Ansoain-Antsoain
Tel. 948 590 818

*Herritarren esku jarritako bankua*
**Un banco en manos de la ciudadanía**
www.fiarebancaetica.coop
fiare bancaetica


# Barne lana, 'Antsoain, Zaintzen duen Herria' ekimenaren norabidea zehazteko

# Trabajo interno para definir la dirección de 'Ansoáin Comunidad que Cuida'

Helburua da zaintza komunitarioen toki sistema bat eraikitzea jende guztiaren ongizatea bermatzeko

Se trata de construir un sistema local de cuidados comunitarios que garantice el bienestar de todas las personas

Udaleko Plan Estrategikoaren lehentasunezko ekintzen artean, 'Antsoain, Zaintzen duen Herria' dago. Ekintzaren helburu nagusia da zaintza komunitarioei buruzko toki sistema inklusibo eta jasangarri bat eraikitzea, pertsona guztien –bereziki, zaurgarrienen– ongizatea eta bizi-kalitatea bermatzeko. Hori guztia zaintzen arloko zerbitzu eta baliabide sarea indartuz, herritarren parte-hartzea sustatuz eta eragile publikoen nahiz gizarte eta osasun eragileen arteko koordinazioaren bidez, arreta osoa eta eraginkorra emate aldera.
2025eko azken hiruhilekoan, barne lana egin da programa norantz eraman zehazteko, denok uler dezagun zaintzak denoi dagozkigula, guk denok zaintzen baitugu eta gu denok ere zaintzen gaituzte; horrenbestez, zaintzak erdigunean jarri nahi dira. Horrela, plan estrategikoan gai zehatzak lantzen ari diren taldeen bidez, lan hori Antsoaingo komunitateari helarazi zitzaion, prozesuan parte-hartze aktiboa sustatzeko eta herritarren balizko proposamenak eta premiak jasotzeko. Hortaz, 'Antsoain, Zaintzen duen Herria' ekimenak jendea animatu nahi du guneetan parte hartzera, ekimena itxuratzen jarraitzeko, egungo beharrak oinarri harturik.
Horrez gain, programaren arduradunek Barañaingo jardunaldi batean parte hartu zuten abenduaren 17an: "Kalitatezko zerbitzu publikoak adinekoendako, azterketa eta aukerak ". 'Antsoain, Zaintzen duen Herria' programa komunitarioaren esperientzia azaldu zuten, bai eta gure herriko Ostoki eta Lapurbide Eguneko Zentro Komunitarioena ere eta, horrekin batera, gaur egun garatzen ari diren proiektuen helburuak, kudeaketa,baliabideak eta zerbitzuak.

Una de las acciones prioritarias del Plan Estratégico del Ayuntamiento ha sido el programa 'Ansoáin Comunidad que Cuida'. El objetivo principal de esta acción es el de construir un sistema local de cuidados comunitarios,



inclusivo y sostenible que garantice el bienestar y la calidad de vida de todas las personas, especialmente de las más vulnerables. Todo ello fortaleciendo la red de servicios y recursos de cuidados, fomentando la implicación de la ciudadanía y a través de la coordinación entre agentes públicos, sociales y sanitarios para una atención integral y eficiente.
Durante el último trimestre del año 2025 se ha realizado un trabajo interno con el fin de definir hacia dónde va este programa, con el fin de entender que los cuidados son un tema que nos incumbe a todas y a todos, ya que todas las personas cuidamos y a todas nos cuidan y, por tanto, poner en el centro los cuidados. A través de los grupos temáticos del plan estratégico se trasladó a la comunidad de Ansoáin este trabajo con el fin de fomentar la participación activa en el proceso y recoger las posibles propuestas y necesidades de la población. Desde 'Ansoáin Comunidad que Cuida' se anima a la gente a participar en los diferentes espacios con el fin de seguir dando forma al programa en base a las necesidades presentes.
Además, las personas responsables del programa participaron el 17 de diciembre en la jornada "Servicios públicos de calidad para las personas mayores, análisis y alternativas" en Barañáin, en la que trasladaron la experiencia del programa comunitario 'Ansoáin Comunidad que Cuida' y también la de los Centros Diurnos Comunitarios Ostoki y Lapurbide de Ansoáin, así como los objetivos, gestión, recursos y servicios asignados a los diferentes proyectos en activo en la actualidad.

# Zaintzaileendako prestakuntza solasaldiak

# Charlas formativas dirigidas a personas cuidadoras

Zaintzaileek beraiendako zaintza-gune bat eskatua zutela ikusirik, azaroaren 6an prestakuntza solasaldi bat egin zen Ostoki Zentroan, dementzia edo asaldura kognitiboak dituzten pertsonen zaintzaileendako, 10 lagunek parte hartuta. Bigarren solasaldia, berriz, abenduaren 11n egin zen, 9 lagun bertaratuta, eta luzeagoa izan zen, lehen saioan parte hartu zutenek berek eskatuta.
Horrelako saioetan prestakuntza espezializatua ematen zaie senideei eta zaintzaileei eta tresna praktikoak jartzen dira haien eskura, eguneroko zaintza, komunikazioa eta estimulazioa hobetzeko. Azken buruan, ikasteko eta lagun egiteko gune bat eskaini nahi zaie laguntzailearen gainzama murrizteko eta familiak zaintzaren rolean sentsibilizatu eta ahalduntzeko, zaintzaileen eta zainduen bizi-kalitatea hobetuta.



Atendiendo la demanda de personas cuidadoras de un espacio de cuidado para ellas, el 6 de noviembre tuvo lugar en el Centro Ostoki una charla formativa para personas cuidadoras de personas con demencia o alteraciones cognitivas en la que participaron 15 personas. La segunda charla se celebró el 11 de diciembre con asistencia de 9 personas y más duración, ya que así lo solicitaron las personas participantes en la primera sesión.
En estos encuentros se ofrece formación especializada a familiares y personas cuidadoras, y se pone a su disposición herramientas prácticas para mejorar el cuidado diario, la comunicación y la estimulación. Se trata de brindar un espacio de aprendizaje y acompañamiento para reducir la sobrecarga de la persona acompañante y sensibilizar y empoderar a las familias en el rol del cuidado, mejorando la calidad de vida tanto de las personas cuidadoras como de las personas cuidadas.

# Zeure irria berraurkitzeko tailerrak

# Talleres para reencontrarte con tu propia risa

Urriko astearteetan, “Antsoain, Zaintzen duen Herria” ekimenak irriterapia tailerra antolatu zuen 60 urtetik gorakoentzat eta/edo dibertsitate funtzionala dutenentzat. 15 lagunendako zen eta toki guztiak bete ziren. Yolanda Monterok eman zuen, irriterapia jolasak, dinamikak, erlaxazioa eta musika erabiliz. Tailerraren bidez, hainbat helburu bete nahi izan ziren, hala nola jendeak barnean daukan alaitasuna eta jolaserako gogoa sendotzea, enpatia eta komunikazioa sustatzea, estresa kontrolatzea eta umore ona baliatzea, haien bidez nork bere irria berraurkitzeko. Harrera ona ikusirik, 2026an tailer gehiago egiteko asmoa dago.

Los martes de octubre, “Ansoain Comunidad que Cuida” organizó en Harrobi un taller de risoterapia dirigido a personas mayores de 60 años y/o con diversidad funcional que completó el aforo máximo de 15 personas. Lo impartió Yolanda Montero sirviéndose de técnicas de risoterapia, juegos, dinámicas, relajación y música. El objetivo de la propuesta era potenciar todo el caudal de alegría y diversión, favorecer la empatía y la comunicación, el control del estrés y el buen humor, para, a través de ello, poder reencontrarse con la propia risa. A la vista de su buena acogida, la idea es ampliar la actividad con más talleres a lo largo de 2026.



# Gizarte Enplegu Babestuak hogei urte bete ditu gure herrian

# Dos décadas de Empleo Social Protegido en el municipio

## Programak lan prestakuntza ematen du sei hilabetez ohiturak eta trebetasunak hartzeko, enpleguaren bidez gizarteratzeko aukerak hobetze aldera

Guztira, 12 lagunek hasi zuten Gizarte Enplegu Babesturako programa, joan den maiatzean. Kopurua handitzen joan zen, harik eta ekainean 21 izan ziren arte. Ekimena Antsoain, Berriozar eta Berriobeitiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean garatzen da.
2025eko edizioa kontuan harturik, dagoenekoz 21 aldiz parte hartu du Antsoainek Nafarroako Gobernuak-Europako Funtsak sustaturiko ekimenean. Xedea da gizartean bazterturik dauden edo bazterturik egoteko arriskuan dauden pertsonei lan kontratazioa egitea aldi baterako, toki entitateen aldetik.
Programa gizarte zerbitzuen erabiltzaileei dago zuzendua, hots, halako baldintza jakin batzuk betetzen dituztenei. Baldintzak Nafarroako Gobernuak ezarri ditu eta horiek bete behar dira hartan parte hartzeko. Lan arloko prestakuntza eman eta jarraipena egiten zaie sei hilabetez, ohiturak eta trebetasunak har ditzaten, enplegu normalizatuaren bidez gizarteratzeko aukerak hobetze aldera eta/edo beste inguruabar batzuk atzemateko.
Edizio honetan, lehen aldiz, parte-hartzaileen profilak hartu dira erabat kontuan, lan kontratuak haien inguruabar pertsonaletara egokitzeko.
Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak arduratu dira Antsoaingo 7 parte-hartzaileak aukeratzeaz, eta programaren kudeaketan hainbat esparrutako udal profesionalek esku hartzen dute, bai eta parte-hartzaileak egunerokoan laguntzeko ardura duten obra-lekuko monitoreek ere.
Denboraldia azaroaren 30ean bukatu zen eta hainbat lan egin dira, hala nola igerilekuaren egokitzapena, huraxe ireki baino lehen, bai eta hura mantentzeko lanak ere, uda partean; hustubideen garbiketa; eskolako jantokiaren eta sukaldearen garbiketa (eskolan bertan udan egindako beste obra batzuez gain) eta beste instalazio batzuk ere garbitu dituzte; halaber, eszenatokiak muntatu dituzte jai eta ekitaldietarako; lorezaintza lanak; eta horma-irudi kolektibo bat sortu da Ostoki pasabidean (argazkian).
Esan bezala, hori guztia 2025eko Gizarte Enplegu Babestua osatu duten taldekideek egin dute.




## Este programa ofrece formación laboral durante seis meses con el objetivo de adquirir hábitos y habilidades que mejoren las posibilidades de incorporación social a través del empleo

Un total de 12 personas iniciaron el pasado mes de mayo el programa de Empleo Social Protegido que se desarrolla en los municipios de la Mancomunidad de Servicios de Base de Ansoáin, Berriozar, Berriobeiti. Cifra que fue aumentando hasta alcanzar las 21 personas contratadas en el mes de junio.
Con la edición de 2025, son ya 21 las participaciones de Ansoáin en este programa promovido por Gobierno de Navarra- Fondo Europeo, para la contratación laboral temporal de personas en situación de exclusión social o en riesgo de estarlo por parte de las entidades locales.
El programa está dirigido a personas usuarias de servicios sociales que reúnen una serie de requisitos, marcados desde Gobierno de Navarra para poder participar en el mismo. Se les ofrece formación y seguimiento laborales durante seis meses, con el objetivo de adquirir hábitos y habilidades que mejoren sus posibilidades de incorporación social a través del empleo normalizado y/o la detección de otras circunstancias.
En esta edición y como novedad, se han llevado a cabo una exquisita adaptación a los perfiles de las personas participantes para adecuar los contratos laborales a sus circunstancias personales.
La selección de las 7 personas participantes de Ansoáin ha corrido a cargo de los Servicios Sociales de la Mancomunidad, y en la gestión del programa intervienen profesionales municipales de distintos ámbitos, además de monitores de tajo encargados de acompañar a las personas participantes en el día a día.
En esta temporada, que concluyó el 30 de noviembre, se han llevado a cabo distintas labores como la adecuación de la piscina antes de su apertura y su mantenimiento durante el verano; la limpieza de sumideros; la limpieza del comedor y la cocina de la escuela (además de otras obras de mantenimiento en el centro desarrolladas durante el verano) y de otras instalaciones; el montaje de escenarios para las diferentes festividades y eventos; diversos trabajos de jardinería; o la creación de un mural colectivo en el pasadizo Ostoki (en la foto), por parte del grupo que compone el Empleo Social Protegido 2025.

# Sexualitateari buruzko tailerrak I. Ochoa de Olza institutuan

# Talleres de sexualidad en el Instituto Iñaki Ochoa de Olza

Iñaki Ochoa de Olza institutuko DBHko 3. mailako ikasleek, ohi denez, curriculumean ageri den ekimen baten bidez heldu zioten urte berriari: sexualitateari buruzko tailerren bidez, alegia. Ikasleek, izan ere, edukiak landu dituzte urtarrilean generoaz, sexualitateaz, tratu onez edo zaintzaz, solasaldi eta dinamika parte-hartzaileen bitartez. Saioen helburua da gune seguru bat sortzea, gazteek sexualitatearen inguruan dituzten kezkak agertu eta zalantzak argitzeko eta, era berean, oinarrizko kontzeptuak azalduz indarkeriari eta desberdinekariai aurrea hartzeko.

Abenduaren 13an, bestalde, Eguberriko eskulan tailer bat egin zen arras giro onean.





El alumnado de 3º de ESO del Instituto Iñaki Ochoa de Olza comenzó el año con un fijo en la programación curricular: los talleres de sexualidad.

Los y las escolares trabajaron en enero contenidos en torno al género, la sexualidad, los buenos tratos o el cuidado mediante charlas y dinámicas participativas. El objetivo de estas sesiones es crear un espacio seguro donde la juventud pueda resolver sus inquietudes y preocupaciones acerca de la sexualidad y de los modelos de relaciones y se expongan conceptos básicos para prevenir la violencia y la desigualdad.

Por otra parte, el 13 de diciembre tuvo lugar un animado taller de manualidades navideñas.

## Ateraldia Getadarko aterpetxera joateko

Gazteskolako hiru ikastaroek Getadarko aterpetxean egin dute Lorealdia, urtarrilaren 30etik otsailaren 1era. Asteburu probetxugarria izan da parte-hartzaileen arteko elkarbizitza sustatzeko, bai eta introspekzio eta kohesio sozialeko dinamikak egiteko ere.

## Salida al albergue de Guetadar

Los tres cursos de la Gazteskola realizaron el Lorealdia el 30, 31 de enero y 1 de febrero en el albergue de Guetadar. Un fin de semana que sirvió para fomentar la convivencia entre sus participantes y para realizar dinámicas de introspección y de cohesión social.

## Harrobi buru-belarri aritu zen Olentzero eta Maridomingi prestatzen

Bete-betean ospatu ziren Maridomingiren eta Olentzeroren etorrerak, abenduaren 21ean eta 24an, hurrenez hurren. Beste behin ere, herritarrek ederki gozatu zituzten Eguberrietako hitzordu seinalatuak, Gaztehandi eta Gaztetxiki taldeetako gazteek egindako lanari esker. Handiek, izan ere, abenduaren 21eko txokolate-jana prestatu eta zerbitzatu zuten, eta haurrek, berriz, bizkotxoen herri lehiaketan parte hartu zuten, bizilagun aunitzek bezala.

Abenduaren 24an, bestalde, Harrobiko gazteek buru-belarri parte hartu zuten Olentzeroren kalejiran. Ezkaba ikastetxeko orga eta jostalekua marrazkiekin apaindu, suziak eraman eta orgatik jan-edana banatu zuten; horrela, herri guztiak Olentzerori egindako ongietorriaz gozatzeko aukera izan zuen.





## Harrobi se volcó con Olentzero y Maridomingi

La llegada de Maridomingi, el pasado 21 de diciembre, y de Olentzero, el día 24, fue festejada por todo lo alto. La población pudo disfrutar un año más de las citas navideñas más esperadas gracias al trabajo que realizaron los y las jóvenes del grupo Gaztehandi y del grupo Gaztetxiki. Si las y los mayores se encargaron de preparar y servir la chocolatada del 21 de diciembre, las y los pequeños participaron en el concurso popular de bizcochos, al que también se sumaron numerosos vecinos y vecinas.

Por otra parte, el 24 de diciembre la juventud de Harrobi participó activamente en la kalejira de Olentzero. Decoraron la carroza y el patio del Colegio Ezkaba con dibujos, llevaron antorchas y repartieron comida y bebida desde la carroza, contribuyendo así a que todo el pueblo pudiera disfrutar del recibimiento a Olentzero.

# 60+ programak zahartze aktiboa sustatzen du

# El programa 60+ promueve el envejecimiento activo

Egunetik egunera, gero eta azterlan gehiagok frogatzen dute ariketak duen garrantzia adineko jendearen osasuna gorputzez eta buruz hobetzeko. Antsoainen, 60+ programa gero eta errotuagoa dago, eta gero eta parte-hartzaile gehiago ditu. Honatx zer jarduera egiten diren: mantentze gimnasia, uretako jarduerak eta indarra lantzeko tailerra, hirurak ere langile espezializatuek gidaturik. Programak zahartze aktiboa sustatzen du, osasuna eta autonomia bultzatuz; azken buruan, adinekoen bizi-kalitatea bultzatuz.

Denboraldi honetan, sei gimnasia talde daude, horien artean mugimen urrituko eta hauskortasuna duten pertsonendako aurten sortu den talde berria. Guztira, 121 lagun dira. Denboraldiak 77 euro balio du eta hiru saio ematen dira astean. Beste 25 lagunek igeriketan edo aquagym-en parte hartzen dute. Uretako jardueren prezioa 77 euro da, lauhileko bakoitzeko, eta bi saio dira astean. Indarra lantzeko tailerrean (iaz, hasia), berriz, 48 lagun ari dira. Saio bat ematen da astean eta 77 euroko prezioa du denboraldi bakoitzeko.



Cada día son más los estudios que demuestran la importancia del ejercicio para mejorar la salud física y mental en la tercera edad. En Ansoáin, el programa 60+ sigue consolidándose e incrementando el número de participantes con sus propuestas de Gimnasia de Mantenimiento, Actividades Acuáticas y Taller de Fuerza dirigidas por personal especializado. El programa promueve un envejecimiento activo, favoreciendo la salud, la autonomía y, en definitiva, la calidad de vida de las personas mayores.

Esta temporada hay seis grupos de gimnasia, incluido uno nuevo para personas con movilidad reducida y fragilidad, que suman en total 121 asistentes. La temporada cuesta 77 euros e incluye tres sesiones semanales. Otras 25 personas participan en natación o aquagym, actividades acuáticas que cuestan 77 euros por cuatrimestre y constan de dos sesiones semanales. El taller de fuerza, que se ofrece desde la temporada pasada, reúne a 48 personas. Con una sesión semanal, su precio es de 77 euros por temporada.

En total, en esta temporada iniciada en octubre participan 194 personas (167 mujeres y 27 hombres), una cifra récord.

## Mikel Xabier Memorialaren edizio berria

5 eta 11 urteko arteko 1.200 jokalari inguru aritu dira Mikel Xabier Memoriala futbol txapelketaren hamaseigarren ekitaldian, zelaiko kadete, jubenil eta erregional kategoriakoak. Errioxa, Aragoi, Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako klubek parte hartu dute.

Gazte Berriak klubeko taldeak garaile atera dira nesken zelaiko bi futbol kategoriatan, mutilen areto-futbolean (6, 7 eta 9 urtekoak), eta 2014ko mutilen futbol 8n. Beste talde batzuk ere irabazle atera ziren, hots, Mendillorri (areto futbola, 6 urte), Burladés (areto futbola, 8 urte), CD Oliver (F8, 2015, 2016 eta 2017), Beti Kozkor (2015 txiki) eta Osasuna (2014).

**Ezkaba Ikastetxea, Osasunako eskolartekoan txapeldunorde**

Ezkaba ikastetxeko talde mistoa txapeldunorde atera da, Luis Amigó ikastetxearen aurkako finala 4 eta 1 galdu izanaren ondorioz. Gainera, Izan Bartolomé Guija txapelketako jokalaririk onena izendatu dute. Nesken taldea final-laurdenetaraino iritsi zen.



## Nueva edición del Memorial Mikel Xabier

La decimosexta edición del torneo Memorial Mikel Xabier de fútbol reunió a unos 1.200 jugadores y jugadoras de 5 a 11 años y a chicas de las categorías de campo Cadete-Juvenil y Regional. Participaron clubes de La Rioja, Aragón, Guipúzcoa, Álava, Bizkaia y Navarra.

Los equipos de Gazte Berriak ganaron en las dos categorías de fútbol campo femenino, en 6, 7 y 9 años de fútbol sala masculino y en fútbol 8 masculino de 2014 txiki. Otros equipos vencedores fueron Mendillorri (sala, 6 años) Burladés (sala, 8 años), CD Oliver (F8 2015, 2016 y 2017), Beti Kozkor (2015 txiki) y Osasuna (2014).

**El Colegio Ezkaba, subcampéon del Interescolar de Osasuna**

El equipo mixto del Colegio Ezkaba se proclamó subcampeón tras caer en la final ante el Colegio Luis Amigó por 4 goles a 1. Además, Izan Bartolomé Guija fue nombrado mejor jugador del torneo. El equipo femenino llegó hasta cuartos de final.

# Antsoaingo rokodromoa, erreferentea Nafarroan

# El rocódromo de Ansoáin, referente en Navarra

2024ko aurrekontu parte-hartzaileen bidez handitu izanaren ondorioz, Idakin dagoen udal rokodromoa eskalada sokadunean aritzeko instalaziorik onenetakoa da Nafarroan.

Era askotako eskalada bideei zor die arrakasta, mailak 5a-tik 7c+-ra bitartekoak baitira. Gaur egun, 45 bide daude ekipaturik eta etengabe berritzen dira hainbat eskalada estilo lantzeko aukera emanda: plakak, makurgunea; erresistentzia, teknika, indarra… behar duten eskaladak. Hori dela eta, eskalatzaile aunitzek gure herriko rokodromoa aukeratzen dute entrenamendua egiteko.

Gainera, udaleko eskalada eskolari eta helduendako hastapen talde antolatuei esker, Antsoaingo Mendi Eskolak lagundurik, eskalada une gorenean dago Antsoainen. Horrez gain, Nafarroako Mendi eta Eskalada Federakundearekin egindako akordioa aipatu behar da, Nafarroako kirol eskaladako selekzioak rokodromoa erabil dezan.

*Erabilera ordutegia eta beste kontu batzuk jakiteko, deitu 948 140 782 zenbakira edo idatzi kirolak@ansoain.es helbide elektronikora.*



Tras su ampliación en 2024 a través de los presupuestos participativos, el rocódromo municipal situado en Idaki se ha convertido en uno de las mejores instalaciones para la práctica de la escalada con cuerda en Navarra.

Su éxito radica en la gran variedad de vías de escalada, con diferentes grados que van desde el 5a al 7c+. En la actualidad hay cerca de 45 vías equipadas y renovadas constantemente, que proponen diferentes estilos de escalada (placas, desplome, escaladas que exigen resistencia, técnica, fuerza,etc.). Esta circunstancia hace que numerosas escaladoras y escaladores lo elijan como lugar de entrenamiento.

La escuela municipal de escalada y los grupos organizados de iniciación para personas adultas, que cuentan con la colaboración del club local Antsoaingo Mendi Eskola, han hecho que el interés por la escalada en Ansoáin esté en un momento álgido. A todo ello se suma el acuerdo alcanzado con la Federación Navarra de Montaña y Escalada para el uso del rocódromo por parte de la selección navarra de escalada deportiva.

*Los horarios de uso y otras cuestiones pueden consultarse llamando al 948 140 782 o a través del email kirolak@ansoain.es.*

---

## Gazte Berriak, Nafarroako halterofilia txapelduna

■ Gazte Berriak klubeko nesken taldeak Nafarroako kluben arteko halterofilia txapelketa irabazi zuen, joan den azaroaren 8an, Harrobin. Lorena Casos, Isla Cruañes, Nerea Ulzurrun eta Nerea Goldaracena jasotzaileak aritu ziren.

## Gazte Berriak, campeonas navarras de halterofilia

■ El equipo femenino de Gazte Berriak ganó el campeonato Navarro de Halterofilia de Clubes, disputado en Harrobi el 8 de noviembre. Participaron las levantadoras Lorena Casos, Isla Cruañes, Nerea Ulzurrun y Nerea Goldaracena.





## CGR Ansoáin klubeko sei talde ari dira maila nazionalean

Antsoaingo Club Rítmica (CGR) klubeko sei talde ari dira maila nazionalean lehian, denboraldia hasi zenez geroztik. Haietako lau (24 gimnasta) Castellon jokatutako Espainiako oinarrizko txapelketarako sailkatu ziren eta, gainerako biak, Espainiako Txapelketa Absolutura joan ziren, Madrila, abenduaren 3tik 6ra.
Hilabeteotan, bestalde, abuztuko entrenamendu trinkoetan eta Vianako irail hasierako bilkuran sortutako ariketa berriak lantzen hasi dira. Emaitzarik nabarmenenak bigarren postu bat izan da jubeniletan, Villamediana de Ireguako txapelketan (Errioxa), eta lehen eta bigarren postu bana kimuetan, Zaragozako Pilareko txapelketan.
Klubak, gainera, Gernikako Xixili torneoan parte hartu du (3. senior), bai eta Nafarroako Erresuma torneoan ere, non, talde guztien maila onari esker, txapelketako klubik onenarendako saria eskuratu baitu (2. kimuak M, 2. kadeteak, 4. kimuak P, 4. jubenilak).

## Seis conjuntos del CGR Ansoáin compiten a nivel nacional

El Club Rítmica de Ansoáin (CGR) inició en septiembre su temporada de conjuntos con seis equipos compitiendo a nivel nacional. Cuatro de ellos (24 gimnastas) se clasificaron para el campeonato de España Base disputado en Castellón y los dos restantes acudieron al Campeonato de España Absoluto que tuvo lugar en Madrid del 3 al 6 de diciembre.
Durante estos meses, han comenzado a rodar los nuevos ejercicios que se crearon entre los entrenamientos intensivos de agosto y la concentración celebrada a principios de septiembre en Viana.
Los resultados más destacados han sido un segundo puesto en categoría Juvenil en el Torneo de Villamediana de Iregua (La Rioja) y un primer y segundo puestos en Alevín en el Torneo del Pilar de Zaragoza.
Además, el Club ha participado en el Torneo Xixili en Gernika (3º Sénior), y en el Torneo Reino de Navarra, donde gracias a las actuaciones de todos los equipos, logró el Premio al Mejor Club del Torneo (2º Alevín M, 2º Cadete, 4º Alevín P, 4º Juvenil).

## Bada tokia igeriketan eta yogan

Otsailaren 2an, bigarren lauhilekoa hasi zen igeri egiten ikasteko, umetxoetan, helduetan eta 60 urtetik gorakoendako, bai eta aquagym 60+ ere. Oraindik ere bada lekurik.
Bestalde, oroitaraziko dugu yoga saioak eskaintzen direla elebitan, astearte eta ostegunetan, 18:15ean eta 19:30ean.
Jaso informazioa kirolak@ansoain.es posta elektronikoan.

## Plazas libres en natación y yoga

El 2 de febrero dio comienzo el segundo cuatrimestre de la natación para bebés, personas adultas, mayores de 60 y aquagym 60+. Todavía quedan plazas libres.
Por otra parte, cabe recordar que se ofrecen clases de yoga bilingües los martes y jueves a las 18:15 y a las 19:30 horas.
Infórmate en el correo electrónico kirolak@ansoain.es.



## Ekipamendu berria Idakiko gimnasiorako

Idakiko gimnasioan, korrika egiteko bi Technogym zinta daude urtarrilaz geroztik, biak ere pantailadunak eta konektibitatea dutenak; hau da, bideoak ikusteko parada dago eta entrenamendu programatuak ere eskaintzen dituzte. 18.060,05 euroko erosketa izan da, BEZa barne.



## Nuevo equipamiento para el gimnasio de Idaki

El gimnasio de Idaki cuenta desde este mes de enero con dos cintas de correr Technogym con pantalla y conectividad, que permiten visionar vídeos y ofrecen entrenamientos programados. Su adquisición ha costado 18.060,05 euros, IVA incluido.

# Eskerrik asko!

Zure txakurraren gorozkiak jasotzeagatik eta gurpil-aulkia erabiltzen dudanean eskuak zikintzea saihesteagatik

# ¡Gracias!

Por recoger las deposiciones de tu perra y evitar que me manche las manos cuando voy con mi silla de ruedas



## Gogoratu-Recuerda:

**Jaso zure animaliaren gorotzak** eta utzi zakarrontzi batean
**Ur botila bat eraman** bere gernuaren gainean botatzeko

**Recoge los excrementos de tu animal** y depositalos en una papelera
**Lleva una botella de agua** para verterla sobre su orina

ANTSOAIN
ANSOÁIN
UDALA · AYUNTAMIENTO

# EGUBERRIA NAVIDAD 2025-26










































# Estalki bat futbol-zelaiko harmailarako, horra aurrekontu parte-hartzaileetako proposamen irabazlea

# Una cubierta para la grada del campo de fútbol, propuesta ganadora de los presupuestos participativos

Gazte Berriak futbol klubaren proposamena garaile atera da aurrekontu parte-hartzaileetarako azken deialdian, 447 botorekin. Aurreikuspenen arabera, lanak 2026an zehar eginen dira, 60.000 euroko aurrekontuarekin.

La propuesta del club de fútbol Gazte Berriak ha resultado ganadora en la convocatoria anual de los presupuestos participativos con 447 votos. Se ejecutará la obra previsiblemente a lo largo de 2026, con un presupuesto de 60.000 euros.

Gazte Berriak klubak 600 jokalari ditu eta Nafarroako futbol kategorietan ari diren 36 taldetan daude banatuta. Areto-futboleko taldeek izan ezik, guztiek ere belar artifizialeko futbol-zelaia erabiltzen dute, 2004an inauguratua.

Bigarren tokian, “Hiri gimnasioa” proiektua gelditu da, herritar batek aurkeztua, eta 282 boto eskuratu ditu. Izan ere, 45.000 euroko aurrekontuarekin, atari zabaleko hiri gimnasio bat egitea proposatu zuen, sistema aldakor eta kardiobaskular batez hornituriko makinak jarriz. Hirugarrena, 213 boto eskuraturik, “kulturarako estalkia” izan da, Antso Fest, Antsoaingo Gazteak, Antsoaingo Txoznak eta Antsoaingo Herri Kirol Taldea erakundeek proposaturik. Rafael Alberti plazan edo Sakanpean karpa bat paratzea proposatu zuten kultur ekitaldiak egiteko.

Deialdian aurkeztutako hiru proposamenen artean aukeratzeko herri bozketa abenduaren 9tik 17ra egin zen. Gure herriko 16 urtetik gorako bizilagun guztiek izan dute botoa emateko eskubidea. Haietarik 942k eman zuten proiektu irabazlea aukeratzeko botoa, hau da, inoiz baino jende gehiagok parte hartu du alde handiz. Proposamen guztiek aise gainditu zituzten 100 botoak, gutxienez boto kopuru hori behar baita proposamenak aintzat hartzeko. Antsoaingo Udalak eskerrak eman dizkie parte-hartzaile guztiei eta, bereziki, deialdian aurkeztu diren proposamenak landu dituzten talde eta herritarrei.



El Club Gazte Berriak cuenta con 600 jugadoras y jugadores repartidos en un total de 36 equipos que militan en diferentes categorías del fútbol navarro. Salvo los equipos de fútbol sala, todos utilizan el campo de fútbol de hierba artificial inaugurado en 2004.

En segundo lugar ha quedado el proyecto “Gimnasio urbano” que, presentado por una persona particular, ha obtenido 282 votos y que, con un presupuesto de 45.000 euros, planteaba la creación de un gimnasio urbano al aire libre mediante la instalación de máquinas con un sistema variable y cardiovascular. El tercer lugar, con 213 apoyos, ha sido para la “Cubierta para cultura” propuesta por Antso Fest, Antsoaingo Gazteak, Antsoaingo Txoznak y Antsoaingo Herri Kirol Taldea. El proyecto consistía en la instalación de una carpa para albergar eventos culturales en la plaza Rafael Alberti o en Sakanpea.

La votación popular para decidir entre las tres propuestas presentadas a la convocatoria tuvo lugar entre el 9 y el 17 de diciembre y a ella estaban convocadas todas las vecinas y vecinos de la localidad mayores de 16 años. Un total de 942 personas emitieron su voto para la elección del proyecto ganador, superando ampliamente la participación de ediciones anteriores. Todas las propuestas superaron holgadamente los 100 votos necesarios para tenerlas en cuenta. El Ayuntamiento de Ansoáin quiere agradecer a todas las vecinas y vecinos su participación y, en especial, el trabajo realizado por los grupos y personas que han trabajado en las propuestas presentadas.

## Mendi Astean emakumeak ardatz



Aurtengo Mendi Astea urtarrilaren 19tik 23ra egin da Antsoaingo Antzokian, 900 bat ikusle bertaratuta. Lehen saioan, Eliseo Belzunce urpeko espeleologiaz mintzatu zen, Burgosko Pozo Azulen egindako miaketa azaltzeko. Urtarrilaren 20an, Ana Salvador (argazkian) nafar alpinistak “¿Y esa luz? Es tu sombra" proiekzioa eman zuen, Peru, Nepal, Bolivia eta beste herrialde batzuetako mendietan behera splitboard-en egin dituen jaitsierak kontatzeko. Biharamunean, aurtengo saio nagusietako baten txanda izan zen, hots, “El desafío de los 4 elementos”, Pou anaien eskutik. Hilaren 22an, María Laborda eskalada txapelduna ‘’Ta Bo, Abriendo Camino: Expedición Angola” filmaren protagonista izan zen, Ixeya musika taldea ere aritu zela. Eta azken proiekzioa (euskaraz) Janire Etxaberen “Haixe Lerroak” lana izan zen.

## Una Semana de Montaña con protagonismo femenino

El Teatro de Ansoáin acogió del 19 al 23 de enero una nueva edición de la Semana de Montaña, a la que asistieron más de 900 personas. Abrió la programación una sesión sobre espeleobuceo de Eliseo Belzunce en el Pozo Azul (Burgos). El 20 de enero la alpinista navarra Ana Salvador (en la foto) ofreció la proyección “¿Y esa luz? Es tu sombra" en la que compartió sus aventuras de descenso en splitboard por montañas de Perú, Nepal, Bolivia, etc. Al día siguiente tuvo lugar uno de los platos fuertes de esta edición, “El desafío de los 4 elementos”, a cargo de los hermanos Pou. El día 22 la campeona de escalada María Laborda fue la protagonista de ‘’Ta Bo, Abriendo Camino: Expedición Angola” y hubo una actuación especial del dúo Ixeya. Y cerró la semana la proyección en euskera “Haixe Lerroak”, de Janire Etxabe.

---

## ‘Komiki Boom’ jardunaldien edizio berria

'Komiki Boom' Antsoaingo Komiki eta Ilustrazio Sozialari buruzko Jardunaldien zazpigarren edizioa martxoaren 20tik 29ra eginen da, jarduera sorta zabala izanen dugula. Egitaraua eta ekitaldiari buruzko beste xehetasun batzuk aurrerago jakinaraziko dira sare sozialen, webgunearen eta udal kartelen bitartez.

## Nueva edición de ‘Komiki Boom’

Las Jornadas de Cómic e Ilustración Social de Ansoáin 'Komiki Boom' vuelven un año más en su séptima edición, que se celebrará del 20 al 29 de marzo con un amplio programa de actividades. La programación y otros datos del evento se darán a conocer más adelante a través de las redes sociales, la página web y la cartelería municipal.

---

## Gauza berriak inauterietan

Antsoaingo inauteriak otsailaren 13an eta 14an ospatuko dira. Larunbatak gauza berri aunitz ekarriko ditu, gure herriko hainbat taldek eta elkartek landutakoak. Egitarauarekin bat, goizean pregoia irakurri eta karrikadantza eginen da, musikak giroturik, eta ibilbidean tarteka gelditurik, denek elkarrekin kaldereroen dantza dantzatzeko. Eguerdi beranduan, berriz, bazkaria eginen da pilotalekuan eta, ondoren, inaute segizioa eta dantzaldia Eztitan taldearen eskutik.



## Carnaval con novedades

Los carnavales de Ansoáin tendrán lugar los días 13 y 14 de febrero. El sábado llegará cargado de novedades, trabajadas por colectivos y sociedades de Ansoáin. La programación incluye por la mañana la lectura del pregón y posterior kalejira con música y paradas para bailar todas juntas el baile de Caldereros. Por la tarde tendrá lugar una comida en el frontón seguida del desfile de carnaval y verbena con Eztitan.

---

## Entzunaldiak Eskola Musikako lehen hiruhilekoa bukatzeko

Eskola Musikak ohiko itxiera eman zion 2025-26 ikasturteko lehen hiruhilekoari, hau da, ohiko entzunaldi irekien bidez, Antsoaingo Antzokian. Hemendik gutxira, gainera, datorren ikasturterako matrikulazio epea irekiko da eta, instrumentuak jotzen eta solfeoa ikasteaz gain, hainbat jarduera eginen dira, hala nola trukaketa.

## Finalizó el primer trimestre en la Escuela de Música

La Escuela de Música cerró el primer trimestre del curso 2025-26 con las habituales audiciones abiertas al público en el Teatro de Ansoáin. Además, próximamente se abrirá el plazo de matriculación para el próximo curso, donde además de aprender solfeo o instrumentos, se realizan actividades como el intercambio.



# 30 parte-hartzaile inguru Eguberriko haur tailerretan euskaraz

# Cerca de 30 participantes en los talleres infantiles navideños en euskera

Beste behin ere, Udaleko Euskara Zerbitzuak, Dindaia Fundazioarekin batera, Eguberriko tailer sorta bat antolatu zuen euskaraz, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurrek euskaraz jolasteko aukera izan zezaten, eskola-ordutegitik kanpo. Jarduerak abenduaren 22tik urtarrilaren 2ra egin ziren, Loza kulturgunean, launa eguneko bi txandatan, 27 haurrek parte hartuta: 13k, lehen txandan, eta 14k, bigarrenean.

Un año más, el Servicio municipal de Euskera, junto con la Fundación Dindaia, organizó talleres navideños de euskera para que las y los niños de Educación Infantil y primeros cursos de Primaria tuvieran la oportunidad de divertirse en euskera fuera del horario escolar. Las actividades se celebraron del 22 de diciembre al 2 de enero en el Centro Cultural Loza en dos tandas de cuatro días de duración cada una, y participaron un total de 27 niños y niñas (13 en la primera tanda y 14 en la segunda).

## Korrika martxoaren 22an iritsiko zaigu Antsoainera

■ Korrikaren 24. edizioa martxoaren 19tik 29ra eginen da eta, ohi denez, euskararen aldeko errelebo lasterketa ospetsua herrira etorriko zaigu; aurten, zehazki, martxoaren 22an, goiz erdian, 11:30ean.
Korrikaren herriko batzorde sortu berria arduratuko da jendearen, erakundeen, enpresen eta entitateen diru ekarpenak jasotzeaz eta, era berean, hainbat jarduera antolatuko ditu lasterketa iritsi aurreko egunetarako; besteak beste, Herri Kirolaren Eguna martxoaren 14an, larunbatarekin, eta Korrika Txikia, martxoaren 20an (ostirala), Ezkaba ikastetxeko zuzendaritzak eta guraso elkarteak antolaturik. Batzordean 15 lagun ari dira lanean.




## La Korrika llega a Ansoáin el 22 de marzo

■ La 24ª edición de la Korrika se celebra del 19 al 29 de marzo, y, como ya es habitual, esta carrera de relevos a favor del euskera visitará Ansoain el domingo 22 de marzo a las 11:30 horas.
El recién creado comité local de la Korrika, formado por alrededor de 15 personas, se va a encargar de recibir las aportaciones económicas de personas, instituciones, empresas y entidades, y de organizar una serie de actividades previas a la llegada de la carrera, entre las que destacan la celebración el sábado 14 de marzo de la Herri Korrika Eguna o la Korrika Txiki organizada por la dirección y la Apyma del Colegio Ezkaba el viernes 20 de marzo.

# HEZKUNTZA / EDUCACIÓN

## Ezkaba ikastetxeak hiri tribuez beteko ditu gure karrikak inauterietan

■ Ezkaba ikastetxeko ikasleak hiri tribu garrantzitsuenen larruan sartuko dira Antsoaingo karriketan barna ibiltzeko, datorren otsailaren 13an, ostiralarekin. Segizioa goizeko 10:30ean abiatuko da, banda batzuek eta txarangak giroturik, eta 11:30 aldean bukatuko da pilotalekuan; han bertan eginen den jaialdian, ikasmaila bakoitzak dantza bat emanen du emanaldira joaten diren familia eta pertsona guztiendako.



## El Colegio Ezkaba llenará las calles de tribus urbanas en Carnavales

■ El alumnado del Colegio Ezkaba se meterá en la piel de algunas de las tribus urbanas más importantes para desfilar por las calles de Ansoáin el próximo viernes 13 de febrero. Al igual que en años anteriores, la fiesta comenzará con la tradicional kalejira de Carnavales por la localidad, que partirá a las 10:30 y estará amenizada con música de algunas bandas y de la charanga. El desfile concluirá hacia las 11:30 en el frontón, donde se celebrará un festival en el que cada curso presentará un baile para todas las familias y personas que asistan a la actuación.

# KULTUR JARDUERAK

# ACTIVIDADES CULTURALES

## 2026
## OTSAILA - FEBRERO

Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua

RED DE TEATROS DE NAVARRA
NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

---

**8**
**igandea**
**domingo**

**TITEREAK**
**TÍTERES**

Antsoaingo Antzokia
Teatro Ansoáin

18:00 (50 min.)

3 urtetik aurrera
A partir de 3 años

PREZIOA / PRECIO
**€ 4,00**

**EUSKARAZ / EN EUSKERA**



### PINTTO PINTTO
***Anita Maravillas***

Pintto galdu den txakurkume bihurri bat da. Pinttok jolastea maite du, baina badirudi norbaitek beldurra diola eta ez duela berarekin jolastu nahi. Pinttok adiskidetasuna zein sinplea eta zoragarria den gogorarazten digu.

Pintto es un travieso cachorro que se ha perdido. Pintto adora jugar, pero parece que alguien le teme y no quiere jugar con él. Pintto nos recuerda lo simple y maravilloso que es la amistad.

---

**13-14**
**ostirala, larunbata**
**viernes, sábado**




### INAUTERIAK
### CARNAVALES

**12:00**
Pregoia. Harrobi
Kalejira eta Kauteroen dantza.
Udaletxe Plaza eta Rafael Alberti Plaza
Pregón. Harrobi
Kalejira y Baile de caldereros/as. Plaza del Ayuntamiento y Plaza Rafael Alberti

**14:00**
Bazkaria. Pilotalekua
Comida. Frontón

**17:00**
Inauteriko desfilea
Desfile de Carnaval

**19:00**
Eztitan taldearekin dantzaldia. Pilotalekua
Verbena con Eztitan. Frontón

**23:00-2:00**
Gazte Inauteria. Ikastetxeko patioa.
Carnaval Gazte. Patio del Colegio Ezkaba

# KULTUR JARDUERAK / ACTIVIDADES CULTURALES

Antsoaingo Udalaren informatzio aldizkaria / Boletín de información municipal de Ansoáin

**20**
**ostirala**
**viernes**

**KOMEDIA MUSIKALA**
**COMEDIA MUSICAL**

Antsoaingo Antzokia
Teatro Ansoáin

19:30
(90 min)

**GAZTELANIAZ / EN CASTELLANO**



## PRIMITAL MADNESS

*Yllana*

Gazte eta helduentzat
Públicos joven y adulto

PREZIOA / PRECIO
**€ 13,00** (aldez aurretik / anticipada)
**€ 16,00** (takilan / en taquilla)

2016an The Primitals sortu zuten buru ulertezinetatik Madness jaio da orain, sistemaren bazterretako bizitzari buruzko komedia musikala.
Elitearekin elkartzetik zubi baten azpian lo egitera. Behartasunetik jet setera. Atzo ostrak jaten; gaur ostrazismoa.
Yllana eta Prímital Brothersek indarrak batu dituzte berriro esateko teknologia mitologia berria dela, eguneroko bizitza erokeria dela, barrea sakratua dela eta a capela kantua gizateriarekiko aingura dela.

De las mentes inescrutables que crearon The Primitals en 2016 nace ahora Madness, una comedia musical sobre la vida en los márgenes del sistema.
De codearse con la élite a dormir bajo un puente. De la indigencia a la jet set. Ayer comiendo ostras; hoy ostracismo.
Yllana y Prímital Brothers vuelven a unir sus fuerzas para decirnos que la tecnología es la nueva mitología, que la vida cotidiana es una locura, que la risa es sagrada y el canto a capela es el ancla con la humanidad.

**22**
**igandea**
**domingo**

**ANTZERKIA**
**TEATRO**

Antsoaingo Antzokia
Teatro Ansoáin

18:00
(60 min)

3 urtetik aurrera
A partir de 3 años

PREZIOA / PRECIO
**€ 4,00**

**GAZTELANIAZ / EN CASTELLANO**



## LA LEYENDA DE LOS GIGANTES

*Iluna Teatro*

Aspaldian, amona bat bizi zen basoan bere bilobarekin. Amona Liria zen eta biloba Luzia. Luzia oso lotuta zegoen amonarekin. Berarekin bizi zen, basoan jolasten zuten, ikasten zuten eta istorioak kontatzen zituzten. Liriak gauza asko zekien basoari buruz, bazekien nondik joan behar zen, leku seguruak zeintzuk ziren eta arriskua egon zitekeela. Halaber, bazekien basoetan izakiak bizi zirela. Baina ez bakarrik ezagutzen ditugun animaliak. Izaki magikoak eta harrigarriak daude!
Gau batean, Liriak bere sekreturik handiena kontatuko dio Luziari: "ERRALDOIEN kondaira". Arriskuan daudela diruditen izaki misteriotsuak.

Hace mucho, mucho tiempo, había una abuela que vivía en el bosque con su nieta. La abuela se llamaba Líria y su nieta Lucía. Lucía estaba muy unida a su abuela. Vivía con ella, jugaban en el bosque, aprendían y contaban historias. Líria sabía muchas cosas sobre el bosque, sabía por dónde había que ir, que zonas eran seguras y donde podía haber un peligro. También sabía que los bosques estaban habitados. Pero no sólo de los animales que conocemos. ¡Hay seres mágicos y sorprendentes!
Una noche, Líria decide contar a Lucía su mayor secreto: "La leyenda de los GIGANTES". Unos seres misteriosos que parecen estar en peligro.

## 25 asteazkena miércoles

Liburutegia
Biblioteca

17:30ean, 3 eta 8 urte bitartekoentzat
17:30 De 3 a 8 años



## CUENTOS ENCANTADOS

*Sergio de Andrés*

Doako sarrera
Entrada libre

GAZTELANIAZ /
EN CASTELLANO

## 27 ostirala viernes

ANTZERKI MUSIKATUA
TEATRO MUSICAL

Antsoaingo Antzokia
Teatro Ansoáin

19:30 (70 min.)

Publiko guztiak
Todos los públicos

EUSKARAZ /
EN EUSKERA



## MUGARRI

*Jokai*

PREZIOA / PRECIO
**€ 5,00**

Antzerkia eta erroko musika dira ikuskizun honen bi ardatzak.
Mugaz gaindiko proiektu honek musika tradizionaleko hainbat elementu, txalaparta kasu, beste instrumentu mota batzuekin uztartzen ditu, baita biolina, biolontxeloa, gitarra eta ahotsak ere, mugan gertatzen diren istorioak ardatz hartuta, ahozko transmisioan oinarritutako ondare immaterialaren parte diren esperientziak berreskuratu, balioetsi eta zabaldu nahi dituztenak.

Teatro y música de raíz, son los 2 ejes de este espectáculo.
Proyecto transfronterizo que fusiona diferentes elementos de la música tradicional, como la txalaparta, con otro tipo de instrumentos, así como violín, violonchelo, guitarra, y voces, teniendo como hilo conductor historias que ocurren en la muga, que pretenden recuperar, poner en valor y difundir experiencias que forman parte del patrimonio inmaterial basado en la transmisión oral.

# HARROBI



### OTSAILAK 7 FEBRERO

**MASKARA TAILERRA / TALLER DE MÁSCARAS**

17:00 h.

Izen emateak otsailaren 5era arte. LH6-DBH3

Inscripciones hasta el 5 de febrero. 6º EP-3º ESO

### OTSAILAK 28 FEBRERO

**MASAJE TAILERRA / TALLER DE MASAJE**

17:00 h.

Izen emateak otsailaren 26ra arte.LH6-DBH3

Inscripciones hasta el 26 de febrero. 6º EP-3º ESO


idaki
Todas las actividades
que deseas y mucho más
Nahi dituzun jarduera
guztiak eta askoz gehiago
MUGI ZATIEZ!
¡PONTE EN MARCHA!
idaki klick
batean
idaki en
un click
www.idaki.org
ANTSOAIN
ANSOÁIN
UDALA · AYUNTAMIENTO